

Fontes

Linguae Vasconum

50 urte. Ekarpen berriak

euskararen ikerketari ¶

Nuevas aportaciones al

estudio de la lengua vasca

Euskara sasoian? Euskara- ren sozializazioa Gasteizko pilota-elkarte batean

IÑIGO BEITIA

Argitaratzaileak / Editores

Ekaitz Santazilia

Dorota Krajewska

Eneko Zuloaga

Borja Ariztimuño



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Euskara sasoian? Euskararen sozializazioa Gasteizko pilota-elkarte batean

Is the Basque language in shape? Basque language socialization in a Basque *pelota* association in Gasteiz

IÑIGO BEITIA

Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

beitia100@hotmail.com

JASOA: 2019/09/04 | BEHIN-BEHINEAN ONARTUA: 2019/09/29 | BEHIN BETIKO ONARTUA: 2019/12/14

Ikerketa hau UPV/EHUko Gizarte Antropologiako masterrean egindako lana da (Beitia, 2018), eta Jone Miren Hernandezen gidaritzapean egin nuen. Horrez gain, *D ereduko kirola* (Soziolinguistika Klusterra, 2018b) deituriko proiektuarekin dago lotuta.

LABURPENA

Ikerketa honetan euskara, gazteak eta aisialdia ikertu dira, eta funtsean, Gasteizko pilota-elkarte batean, 13-15 urte bitarteko gazteekin egin den ikerketa etnografikoa aurkezten da. Lana antropologiako tekniken bitartez egin da, pilota-elkarte honetan hizkuntzaren (euskararen) sozializazioa nolakoa den ikertzeko asmoz. Hau guztia, gainera, gazte eta frontoiko agente desberdinen iritziak kontuan edukiz eta behaketetan hauek egiten dituzten praktikak behatuz egin da. Amaieran ondorioztatuko da, besteak beste, hizkuntza-sozializazioari begira harremanek pisu handia hartzen dutela, eta beraz, hizkuntza soziabilitatea bultzatzen duten egoerak sortu behar direla. Azkenik, hizkuntza-praktiken bitartez, hizkuntzaren sozializatorako beharrezkoak diren elementuak azalarazten dira.

Gako-hitzak: hizkuntza-soziabilitatea; hizkuntza-sozializazioa; hizkuntza-antropologia; euskara.

ABSTRACT

This article focuses on Basque language, youth, and free time, through an ethnographic research on a Basque *pelota* association in Gasteiz. The study, conducted with anthropological techniques, delves into the socialization of the Basque language in the abovementioned association. Furthermore, the views of the different agents on the *pelota* court were taken into account, and their practices noted. It is concluded that relationships play a big role in language socialization, hence situations compelling language sociability have to be created. Lastly, elements necessary to language socialization surface through language practices.

Keywords: language sociability; language socialization; linguistic anthropology; Basque language.

1. Sarrera

Lan hau Gasteizen kokaturiko ikerketa etnografiko bat da eta bertan euskararen sozializazioa gazteen artean nolakoa ikertu nahi da, hizkuntzaren antropologiaren oinarri teoriko-metodologikoak erabiliz.

Labur esatearren, ikerketa-gaiak aisialdian gazteen eta euskararen artean den erlazioa ulertu nahi du; horretarako, Gasteizen euskara ardatz duen pilota-elkarte batean, gazteak pilotaren praktikaren bidez hizkuntzarekin (euskararekin) nola sozializatzen diren ikertuko da.

Hori esanik, lanaren ardatza gazteak eta euskara direla ikus daiteke, eta horiek ikertzeko aitzakia bezala, euskaraz lan egiten duen Gasteizko pilota-elkarte bat hautatu da. Proiektuari begira, espazio hau interesgarria iruditu zitzaidan hainbat ezaugarriengatik: 1) gazteek beren identitateak aisialdian eratzten dituzte, beraz, haien bizitzetan garrantzitsua den heinean, aisialdia ikertu behar da; 2) aisialdiaren barruan, kirolak gero eta pisu handiagoa du (kirolak identitate gero eta gehiago ematen du, halaber), beraz, kirolen bat ikertzea interesgarria iruditu zitzaidan; 3) gainera, aukeratutako pilota-elkarteak euskaraz egiten du lan, kirolean orokorrean gaztelera erabiltzen denean; 4) pilotak euskalduntasunarekin daukan loturarengatik, gazteek beren identitatean euskara barneratuko zutela iruditu zitzaidan. Hau guztia, gainera, Gasteiz bezalako testuinguru soziolinguistikoa daukan hiri batean.

Jarraian, ikerketako helburu eta hipotesi nagusiak azalduko dira.

2. Ikerketako helburu eta hipotesiak

2.1. Helburuak

Ikerketa honen helburuak honako hauek dira:

- Gasteizko errealitate soziolinguistikoa kontuan izanik, ikertuko den pilota-elkartea bertako gazteentzat, pilota-elkarteko inguruarentzat eta hiriarentzat euskararen eta euskal identitatearen foku sozializatzaile bat den aztertzea.
- Pilota-elkarteko hizkuntza euskara izateak gazte hauentzat zer dakarren jakitea.
- Kirolaren bidez, euskararen sozializazioa gazteen artean nolakoa den ikertzea.
- Kirolean euskararen sozializazioari dagokionez egon daitezkeen gakoak aurkitzea.

2.2. Hipotesiak

Lanaren gaia (gazteak, euskara, pilota, aisialdia) zein den ikusita eta helburu nagusia euskararen sozializazioa ikertzea dela kontuan izanik, ondorengo hipotesiak izan dira ikerketan zehar aztertu direnak:

- Aisialdian, euskara ardatz duen (pilota) elkarte batean egotean, gazte hauek euskararekiko harreman estuagoa landuko dutela: batetik, aisialdian garatzen delako eta eskolatik kanpoko eremua delako; bestetik, euskara gehiago erabiltzen dutelako.
- Pilota-elkartea izanik aukeraturiko eremua, pilotak euskal kulturarekin berez daukan loturarengatik, euskararekiko harreman estuago hori indartu egingo dela.

Behin ikerketako helburu eta hipotesi nagusiak azalduz, jarraian erabili den oinarri teorikoa azalduko da.

3. Marko teorikoa

Aurretik esan bezala, ikerketa hizkuntza-antropologiaren ikuspuntutik bideratu da, ondorioz, diziplina honetatik jasotako kontzeptuak izango dira ardatz: hauen artean, *hizkuntza-sozializazio* paradigma eta *praktika-komunitate* kontzeptua.

3.1. Hizkuntza-sozializazioa

Paula Kasaresek (2015) *hizkuntza-sozializazio* deituriko paradigma ekarri zuen euskal soziolinguistikara; honek, bere aburuz, kontuan izateko ekarpenak egiten ditu eta berau azaltzeaz gain, euskal soziolinguistika klasikoari kritika batzuk egiten dizkio paradigma honetatik abiatuta. Jarraian paradigma osatzen duten ideia nagusiak azalduko dira.

Hasteko, paradigma honen oinarrietako bat sozializazioa da; berau, bizitzako etapa zehatz batzuei lotu beharrean, bizitza osoan zehar gertatzen dela defendatzen du teoria honek. Alegia, hainbat fase eta elementu eduki ditzakeen eta bizitzan zehar irauten duen sozializazio bat defendatzen da (Kasares, 2015). Hori izango litzateke paradigma honek daukan lehen ezaugarri nagusia.

Teoria honen beste ezaugarri nagusi bat hiztunek hizkuntzekiko dituzten diskurtso eta praktikak gizartetik ikasten dituztela defendatzen duela da. Hau da, gizarteak pisu handia dauka hiztunak eta hizkuntzak daukaten erlazioan; honela diosku Kasaresek (2015, 20. or.):

Gurera etorrira, hizkuntza-sozializazioa [...], inguruneko egoera soziolinguistikoa, harreman sareetan, mintzairaren estatusen eta gizarte oharmena bezalako alderdi mikro eta makrosoziologikoen mailetan ere kokatu beharra dagoela iradoki dute.

Paradigma honek, beraz, bizitzan zehar gerta daitezkeen hizkuntza-sozializazio desberdinez gain, hizkuntzek gizartean daukaten lekuaz ere hitz egiten du, azken horri garrantzia emanez (Kasares, 2015).

Bestalde, Kasaresek (2015) *hizkuntza-sozializazio* paradigma abiapuntu hartuta, euskal soziolinguistikak hizkuntzaren transmisioaren gainean eduki duen ikuspun-

tu irmoari kritika egiten dio. Bere aburuz, etxeko edota goitik beherako transmisioa eduki da kontuan soilik, etxean ikasten den hizkuntzarekiko harremana behin betikoa izango balitz bezala. Honela dio: «Izan ere [...] umeak zein hizkuntzatan hazi erabakitzeko orduan hitzunaren ama hizkuntza baino eraginkorragoak dira hitzun horrek hizkuntzarekin garatu dituen harremanak eta eratu dituen loturak» (Kasares, 2015, 23. or.). Alegia, hitzunek beren (hizkuntza) sozializazioan daukaten ingurua erabakigarria izan daiteke, eta hizkuntzaren gaineko balio eta praktikak baldintzatzen ditu. Esandakoa oinarri gisa hartuta, Kasaresek (2015) hizkuntza-transmisioaren fokua etxetik atara eta gizartera zabaltzen du, salatzen duen orain arteko ikuspuntu itxia zabalduz.

3.2. Praktika-komunitateak

Praktika-komunitate bat praktika konpartitu bat egiten duen talde soziala da; hau da, helburu jakin batek ezartzen duen praktika batengatik elkartzen den jendea *praktika-komunitate* gisa defini daiteke. Kontzeptu honen erdigunean, beraz, *praktika* kontzeptua agertzen zaigu (Eckert, 2006). Honi loturik, Jone Miren Hernandezek (2008) komunitate-praktiketan praktikaren ideia zentrala dela diosku, azken batean, komunitateko parte izateko desira eta taldearekiko inplikazioa praktikak berak erakusten duelako.

Hizkuntzari dagokionez, aipatu behar da praktika-komunitate batean, bertako kideek beren hizkuntza-praktikak, ohiturak eta hiztegiak garatzen joango direla; Eckerten (2006) arabera, praktika-komunitateak identitate bat eratuko du komunitate-kideen artean eta beren arteko hizkuntza-praktikek komunitateko identitate hau artikulatuko dute. Honi loturik, eta ikerketa honi dagokionez, aipatuko da kontzeptu hau oso lagungarria dela hizkuntza-praktikarekin erlazionatzerako orduan, funtsean, pilota-elkarteko gazteengan zentratzean, praktika bat egiten dutelako (kirola, pilota).

3.3. Gune monitorizatuak

Gazteen aisialdian arreta jartzean, jakina da gazteak ibiltzen diren guneek askotariko ezaugarri dituztela. Ikerketa honetan gazteak, hizkuntza eta aisialdia dira hizpide eta, horiek ikertzeko, pilota-elkarte bat hautatu da. Ondorioz, nahitaezko egiten da kluba aisialdi gune bezala definitzea.

Pilota-elkartearen ezaugarriak kontuan edukiz gero, berau gune monitorizatu bezala dago definituta; mota honetako guneak dituzten ezaugarri nagusiak ondorengo hauek dira: helduek egindako azpiegiturak izateaz gain, bertako jarduerak helduek pentsatzen dituzte; hau da, helduen ikuspegitik antolatzen dira gazteendako jarduerak; bestalde, begirale baten zaintza eta ardura egoten da era horretako guneetan; gainera, gehiago zehaztuz, praktikatzen den kirolean trebetasun eta optimizazio jakin bat eskatzen zaie gazteei; gainerakoan, ekintza hauek gazteen aisialdia egituratzen dute, bai asteburuan eta bai aste barruan; eta, azkenik, heziketa ez-formalarekin lotzen dira (Berrio-Otxoa, Martinez & Hernandez, 2003).

Behin kontzeptu nagusien ezaugarriak ikusirik, jarraian metodologiaren gainean hitz egingo da.

4. Metodologia

Sarreran ikus daitekeen bezala, ikerketa kualitatiboa proposatzen dut. Funtsean, hurbilpen etnografikoa egin nahi izan da, eta ikuspegi antropologikotik garatu den ikerketa kualitatiboa dela esan daiteke.

Teknikai dagokienez, berriz, etnografia-teknikak erabili dira: behaketak, elkarrizketak eta, azkenik, dokumentazio-bilketa. Jarraian, behaketen eta elkarrizketen gaineko datu batzuk emango ditut:

- a. Behaketei dagokienez, ikerketan zehar pisu handia dutela esan behar da. Guztira 14 behaketa egin dira; denak gazteen entrenamendu-orduetan. Behaketen bitartez, pilota-elkarteko dinamika zuzenean ikusi ahal izan dut, eta ondorioz, zuzeneko informazioa eskuratu.
- b. Behaketetatik jasotako informazioa kontrastatu eta modu osagarrian erabiltzeko, gazte zein entrenatzaileei elkarrizketak egin zaizkie¹. Egindako elkarrizketak, hala ere, ez dira elkarrizketa sakonen teknikaren bitartez egin, baizik eta *hiruko talde*² deituriko elkarrizketa-teknikaren bitartez.

Teknika honetan elkarrizketatzaile bat dago eta berarekin hiru pertsona elkarrizketatzen dira batera; gainera, aldi berean, elkarrizketatuen arteko eztabaida gerta daiteke. Eztabaida-talde txiki bat dela esan dezakegu, non dinamika interaktiboago eta irekiago bat dagoen, elkarrizketatuaren eta elkarrizketatzailearen artean hurbilpen handiagoa izanik (Ruiz, 2012).

1. taulan tekniken kopuruak, eta 2. taulan ikerketan parte hartu duten gazteen datuak adierazi dira.

1. taula. Erabilitako tekniken kopuruak

Teknika	Kopurua
Entrenamenduetako behaketak	14
Gazte elkarrizketatuak ⁽¹⁾	9
Entrenatzaile elkarrizketatuak	3

⁽¹⁾ Nire asmoa hiruko elkarrizketak egitea zen; hala ere, egoera kudeatzea ez da erraza izan. Bederatzi gazte elkarrizketatu ditut, guztira, lau elkarrizketatan: lehenean hiru gazte zeuden; bigarrenean bi; hirugarrenean hiru; eta azkenenean bakarra.

2. taula. Parte-hartzaileen datuak

Izenak ⁽¹⁾	Haritz	Iñaki	Andoni	Liher	Iban	Sabin	Alberto	Joseba	Adan	Garikoitz
Adina	13	15	13	13	14	15	15	13	15	?
Lan-egoera	Ikaslea	Ikaslea	Ikaslea	Ikaslea	Ikaslea	Ikaslea	Ikaslea	Ikaslea	Ikaslea	Ikaslea
Bizitokia	Gasteiz	Gasteiz	Gasteiz	Gasteiz	Zalduondo	Gasteiz	Zurbao	Gasteiz	Gasteiz	Gasteiz

⁽¹⁾ Ikerketan erabili diren izen guztiak asmatuak dira.

¹ Elkarrizketa guztiak frontoian elkarteko batzordeak daukan bulegoan egin dira, entrenamenduak hasi aurretik.

² Gazteleraz hiruko taldeari *grupo triangular* deitzen zaio.

Ikus daitekeen bezala, denak mutilak izateaz gain, gasteiztarrek dira gehienak. Aipatu behar dut Garikoitz gutxitan joaten zela entrenamenduetara eta elkarrizketa ezin izan niola egin. Bestela, denek antzeko adina dutela ikus daiteke (kirolaren alderditik begiraturaz, batzuk infantilak dira; besteak, kadeteak). Gainerakoan, guztiak dira euskaldunak. Entrenatzaileak, berriz, Ismael eta Aingeru dira eta 24 eta 21 urte dituzte, hurrenez hurren.

Ikerketan erabilitako metodologia eta bertan parte hartu dutenen datuak azalduz, jarraian Gasteizko datu soziolinguistiko batzuk azalduko dira, hizkuntza-testuingurua hobeto azaltzeko.

5. Gasteizko datu soziolinguistiko batzuk

Jarraian, laburki, Gasteizko datu soziolinguistiko batzuk emango ditut: hizkuntza-gaitasuna, hizkuntzaren kale-erabilera eta, azkenik, etxeko transmisio-hizkuntza aipatuko ditut.

5.1. Hizkuntza-gaitasuna

Gasteizek 2011n 232.827 biztanle zituen, eta urte hartako hizkuntza-gaitasuna hirian honako hau zen: % 22,5 euskaldunak ziren, % 26,1 euskaldun hartzaileak eta, azkenik, gainerako % 51,4 ez-euskaldunak. Garrantzitsua da esatea euskaldunen kopuruak gora egin duela: 1986an ez-euskaldunen kopurua % 77 zen, eta 2011n, aipatutako % 51 (Gasteizko Udala, 2013).

Hala ere, hizkuntza-gaitasuna ez da parekoa adin-tarte guztietan: adinean behera egin ahala, euskaldun gehiago daude Gasteizen³. 3. taulan, Gasteizko nerabeek daukaten hizkuntza-gaitasunaren datuak emango ditut.

3. taula. Gasteizko nerabeen hizkuntza-gaitasuna
(iturria: *Euskara biziberritzeko plan nagusia*, Gasteizko Udala, 2013)

Adina	Euskaldunak	Euskaldun hartzaileak	Ez-euskaldunak
10-14	% 72,59	% 21,49	% 5,92
15-19	% 57,36	% 24,12	% 18,52

Datuetan arreta jarritz gero, ikus daiteke gaur egungo nerabe gehienak direla euskaldunak Gasteizen. Jarraian, hirian hizkuntzaren erabilera nolakoa den ikusiko da.

³ Ikus daitekeenez, Gasteizen dauden euskaldun gehienak hezkuntzaren bitartez euskaldundu dira. Datu honek errealtatearen beste datu garrantzitsu bat uzten digu: Gasteizko euskaldun gehienak hitzun berriak dira. Artikulu honetan ez dut hitzun berrien gaineko daturik eman, baina Ortegak, Amorrortuk, Goirigolzarrik, Urlak eta Urangak (2016) gai honen inguruan egindako lana erreferentzia izan da ikerketa osoan zehar. Finean, Gasteizko euskaldun gehienak hitzun berriak diren heinean, haien errealtatea hobeto ulertzeko beharrezkoa da.

5.2. Hizkuntza-erabilera

2016an (246.042 biztanle zituen orduan Gasteizek) Soziolinguistika Klusterrak (2017) egindako kale-neurketaren arabera, euskararen kale-erabilera hirian % 3,7koa zen; horrek, hala ere, gora egin du ikuspuntu diakronikoa kontuan hartzen baldin bada, 1989an euskararen erabilera % 2koa baitzen. 2006an, berriz, euskararen erabilera % 4koa zela ikusi zuten; beraz, balantze orokorrean gora egin badu ere, azken urteetan beherakadaxoa izan duela dirudi. Euskararen kale-erabilera adinka banatzen bada, 4. taulakoak dira datuak.

4.taula. Gasteizko euskararen kale-erabilera adin-tarteka
(Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, Soziolinguistika Klusterra, 2018a)

Haurrak	% 5,9
Gazteak	% 5,3
Helduak	% 3,5
Adinekoak	% 0,9

Ikus daitekeenaren arabera, eta hizkuntza-gaitasunaren datuekin bat etorritz, adineko jendeak ez du ia euskararik erabiltzen; bestela, beste adin-tarteetan aurkitu daitekeen erabileraren ehunekoak antzekoa da, gaitasunari dagokionez haurrek eta gazteek helduek baino handiagoa izan arren.

Bestalde, garrantzitsua da aipatzea Gasteizen gaztelania ez diren hizkuntzek euskara baino erabilera handixeagoa dutela; hau da, etorkinen hizkuntza guztien erabilera handiagoa da hirian euskararena baino: 2016an, % 3,8ko erabilera (Soziolinguistika Klusterra, 2018a).

Azkenik, atal honekin eta datu soziolinguistikoekin amaitzeko, hizkuntzaren etxeko transmisioaren gainean hitz egingo da.

5.3. Hizkuntzaren etxeko transmisioa

Gasteizko etxeetan % 2,75ek erabiltzen du euskara, gaztelera % 90,48k, bi hizkuntza hauek batera % 3,56k eta, azkenik, beste hizkuntzaren bat % 3,21ek (2011ko datuak). Euskararen erabilerak etxeetan gora egin du azken urteetan, 1996ko % 4,3tik 2011ko % 6,3ra (bi hizkuntzak hitz egiten dituztenak eta euskaraz soilik egiten dutenak batuta); hala ere, ez da igoera handia izan (Gasteizko Udala, 2013).

Horrez gain, aipatu behar da Gasteizko guraso hiztun berriek euskara transmititzen dietela seme-alabei; halaber, guraso hiztun berri hauen seme-alaben % 80 baino gehiago elebidunak dira. Hala ere, hiztun berrien familien % 90ek gaztelera erabiltzen dute orokorrean etxeko hizkuntza bezala (Gasteizko Udala, 2013).

6. Hizkuntza-soziabilitate zaindua

Hizkuntza-soziabilitate zaindua behaketetan oinarrituta proposatzen dudana kontzeptu bat da, eta ondoren azalduko diren ikerketako emaitza nagusiak ulertzeko ezinbestekoa da. Funtsean, esango dut kontzeptu honek frontoian gertatzen diren hizkuntza-praktikak testuinguratzen laguntzen duela, harremanetan jarritz arreta. Jarraian, kontzeptua ardatzen duten ezaugarri nagusiak azalduko dira laburki.

Esan bezala, kontzeptua ikerketa honetako behaketetan eskuratutako informazioaren bitartez asmatu da. Behaketetan, ez nuen euskararen aparteko erabilerririk ikusi; dena den, ezaugarri batzuek arreta eman zidaten: batetik, klubak euskara bultzatzen du argi eta garbi (pilota-federazioetik euskara bultzatzen da, batzordeko kide gehienek euskaraz daktite, entrenatzaileek euskara erabiltzen dute gazteekin...); bestetik, frontoian orokorrean entzuten den euskara-kantitatea aurretik azalduko datu soziolinguistikoek erakusten dutena baino altuagoa da; eta azkenik, agerikoa da frontoian biltzen den praktika-komunitateak frontoi barruko lehen hizkuntza euskara izatea onartzen duela; alegia, euskarari lehentasuna ematen zaio. Horrek erakusten du badagoela jarrera positiboa euskararekiko.

Nire aburuz, beraz, ezaugarri hauek erakusten dute hizkuntza-soziabilitate zaindu batez hitz egin daitekeela. Euskara zaintzen duen gune bat da eta euskara erabiltzeko (eta bere soziabilitaterako) harreman egokiak sortzen ditu. Hizkuntza-soziabilitate hau ulertzeak frontoiko hizkuntza-praktiken gaineko testuinguratzeko hobea ematen du.

Dena den, esan bezala, euskararen erabilera bultzatzen duten ezaugarri batzuk daudden arren (praktika-komunitatea, euskara izatea elkarteko hizkuntza, soziabilitaterako aukera), gazteen aldetik eta guraso batzuen aldetik orokorrean gaztelera erabiltzen da.

Dagoeneko, ikerketaren planteamendu orokorra zein den ikusi da: oinarri metodologiko eta teorikoak azaltzeaz gain, ikerketa-objektuaren testuinguraketa ere egin da, Gasteizko datu soziolinguistikoak erabiliz. Gainera, behaketetatik abiatuta asmatu den *hizkuntza-soziabilitate zaindu* kontzeptuaren oinarriak azaldu dira. Jarraian, beraz, ateratako emaitza nagusien analisia azalduko da.

7. Emaitza nagusien analisia

Jarraian, emaitza nagusien analisia egingo da eta, honetarako, praktika-komunitatearen, hizkuntza-sozializazioaren eta hizkuntza-soziabilitate zainduaren inguruan atera diren ezaugarri nagusiak edukiko dira kontuan.

7.1. Praktika-komunitatea

Frontoian biltzen den komunitatea *praktika-komunitate* gisa defini daiteke; funtsean, pilotaren praktikarengatik biltzen direlako bertan. Dena den, komunitatearen ideia, praktika zehaztetatik haratago, zeharka bada ere, badagoela esan daiteke, frontoian biltzen diren agenteen artean hurbiltasun handia dago eta.

Horrez gain, esan daiteke pilotaren inguruan dabilen praktika-komunitatearen hizkuntza euskara dela. Funtsean, pilota-federazioek euskara bultzatzen dute eta Gasteizko klub handienek euskaraz egiten dute lan. Halaber, entrenatzaileek zein gazteek aipatu

didatenez, Gasteizetik kanpora joatean (Gipuzkoa, Nafarroa edo Bizkaira; Errioxa edo Araban berriz, ez) eta, adibidez, aldageletan takoak jartzen ari direnean, euskara erabiltzera derrigortuta daude, bertako gazte guztiek euskaraz hitz egiten dutelako. Horrez gain, elkarriketetan esan didatenean arabera betiere, gazte eta entrenatzaileek pilotaren mundua euskararekin lotzen dute zuzenean: banaezinak dira. Adibide hauekin ikus daiteke pilotaren komunitate-praktikako erreferentzia-hizkuntza euskara dela. Dena den, aipatzekoa da era berean instituzioetan hizkuntza-ideologia bat dagoela, funtsean, komunitate-praktika honetan euskararen erabilera bultzatzeko.

Beste gai bati helduz, komunitate-praktikari eta hizkuntzari loturiko bigarren ezauzgarri bat aipatuko da. Landa-lanean zehar agenteek egin dituzten hizkuntza-erreferentziak pilotaren komunitatearekin erlazioatutakoak izan dira. Finean, normala da: klubaren ardatza pilota den heinean, identitatea haren inguruan eraikiko da, eta hizkuntza-praktikek pilotarekiko hurbiltasun hori erakusten dute; beraz, pilotan jokatzeari loturiko komunitatearen gaineko identitatea da hizkuntzak indartzen duena. Behaketetan, adibidez, oso ohikoa izan da pilotarien jerga entzutea: *hueco/puente, clabo, curamanos...* Horiek pilotako hitz tekniko bezala definitu ahal dira; komunitate-praktika horretan esanahi bat dute eta praktika horren bueltan dabilzanek ezagutzen dituzte.

7.2. Hizkuntza-sozializazioa

Hizkuntza-sozializazioaren oinarriak aipatzean, ikusi da hizkuntzei loturiko balio eta praktikak hitzunean beren testuinguruetatik ikasten dituztela (Kasares, 2015). Landa-lanean gazteei euskararen gainean galdetzean, *klik* egiten dutela dirudi, eta euskararen gainean dagoen diskurtsoa errezitatzen dute: «Euskara polita da eta hitz egin behar da»; «Pena da galtzea, gehiago egin behar da...». Nago gizartean dagoen errealitatearen erakusle dela diskurtso hau eta gazteek oso ikasia daukatela. Gainera, politikoki zuzena da, oso. Gazteek, beraz, gizartetik ikasitako euskararen balio eta praktikak dituzte.

Bestela, hizkuntza-sozializazioari begira, bi puntu garrantzitsu atera dira:

- Entrenatzaileek pisu berezia hartzen dute klubaren barruan, hizkuntzaren aldetik begiraturik. Gazteekin eguneroko kontaktua dute eta haiekiko botere bat daukaten arren, agente hauen artean dagoen hurbiltasunak hizkuntza-praktiketan gertutasun hori islatzea dakar. Faktore garrantzitsutzat ikusten dut, beraz, entrenatzaileak gazteen hizkuntza-praktiketarik hurbil egotea. Hizkuntzaren sozializazioan, hortaz, goitik beherako transmisioan, garrantzi handia hartzen dute entrenatzaileek, betiere gazteekiko daukaten hurbiltasun-mailaren arabera.
- Dena den, aipatu da hizkuntza-sozializazioak goitik beherako transmisioan ez ezik, beste transmisio foku batzuetan ere jartzen duela arreta; adibidez, hizkuntzaren gaineko harreman horizontaletan (Kasares, 2015). Mota horretako harremanetan, gazteek beren artean gaztelera sozializatzen dutela ikusi da egindako behaketetan; dena den, hizkuntzaren praktikei lotuta, arreta ematen du halaber zein hizkuntza-mota erabiltzen duten beren artean, orokorrean, erabiltzen duten hizkuntza-mota adarra jotzeari baitago lotuta. Aipatzekoa da bromatzen hori gazteen artean bakarrik ez, entrenatzaileen artean ere zabaltzen dela.

Behatutako ideia nagusi hauek aipatuta, esan daiteke kirolean euskararen sozializazioa kirol-elkarteek daukaten horizontaltasunak eta hurbiltasunak baldintzatzen dutela hein handi batean. Zenbat eta hurbiltasun handiagoa egon, sozializazioa hainbat eta errazagoa izango da.

7.3. Hizkuntza-soziabilitate zaindua

Hizkuntza-sozializazioari buruz hitz egiterakoan, klubaren hurbiltasunean eta horizontaltasunean jarri da arreta, besteak beste. Horietaz hitz egitean, funtsean, klubean behatutako harreman-motetaz ari gara hitz egiten. Epigrafe honetan gehiago sakonduko da gai honetan, *hizkuntza-soziabilitate zaindua* kontzeptuaren bitartez.

Aurretik esan bezala, hizkuntza-soziabilitate zainduaz hitz egitean, frontoian dagoen giroari egiten zaio erreferentzia; alegia, klubak euskara zaintzen du eta euskararen erabilerarako eta soziabilitaterako harreman egokiak sortzen ditu. Ildo honetatik jarraituz, esan daiteke klubeko agenteen artean badagoela kontsensu bat; hau da, frontoian eta klubeko hizkuntza euskara izatearen aldeko kontsentsua.

Esan daiteke, beraz, klubak euskararen soziabilitaterako beharrezkoak diren harremanak sortzen dituen heinean, eta agente desberdinen aldetik gaiarekiko kontsentsu bat dagoenean, euskara sozializatzea errazagoa izango dela. Gainera, (praktika) komunitate bat izatean, agenteen arteko harremanak logika horretatik bideratzen dira. Honi lotuta entrenatzaileei egindako elkarrizketan frontoian ea euskararen erabilera kutsa daitekeen galdetu nien. Haietako batek esan zidan, bertan dagoen giroagatik espero zuela kutsatzea, eta ez klubak ikastolaren ereduarekin daukan antzekotasunarengatik (alegia, beste hitz batzuetan, gune monitorizatu bat izateagatik).

Azken honekin lotuta, esan behar da elkarte gune monitorizatu bat denez, landalanean zehar askotan agertu dela klubaren eta eskolaren arteko lotura. Aipatu da, besteak beste, gune monitorizatuak helduek gidatutakoak direla eta horietan gazteek begirale baten zaintza dutela. Bi espazioek ezaugarri horiei dagokienez dituzten berdintasunak nabariak dira, baina hizkuntzari dagokionez badago desberdintasun bat: hizkuntza-soziabilitate zaindua. Frontoi barruan dagoen giroa, harremanak gauzatzen diren modua, euskararekiko kontsentsua, horizontaltasuna; honek desberdintzen ditu, nire aburuz, eskola eta elkarte hizkuntzaren aldetik begiratuta.

Amaitzeko, beraz, esan behar da hizkuntza-soziabilitate zaindua funtsezkoa dela ikerketa honi begira: frontoian gertatzen diren agenteen arteko hizkuntza-harremanak testuinguratzen ditu, euskararen inguruko kontsentsua eta zaintza kontuan edukiz; eta honek harremanek daukaten garrantzia zenbatekoa den gogorarazten du.


8. Aurrera begirako proposamenak: landutako ideiak josten

Jarraian, bi proposamen teoriko azalduko dira. Lehenean, praktika-komunitateari, hizkuntza-soziabilitateari eta hizkuntza-sozializazioari buruz hausnartuko da; bigarrenean, *third space* deituriko proposamena edukiko da kontuan.

8.1. Hausnarketa

Orain arte azaldutakoa kontuan izanik, zilegi da pentsatzea praktika-komunitatea, hizkuntza-sozializazioa eta hizkuntza-soziabilitate zaindua hirusta bat direla; hau da, hirurak loturik daude. Praktika-komunitateak, funtsean, praktika ekartzen du gogora; hizkuntza-sozializazioak hizkuntzaren oinarria (garapena, zorua); eta soziabilitateak, berriz, harremanen garrantzia. Praktika (eta ondorioz, komunitate) horrek ekarriko dituen harremanek sozializazioa baldintzatuko dute. Hartara, 1. irudiko hirusta proposatzen dut.

Esan daiteke praktika-komunitatean dagoen giroak (agenteen arteko harremanek), eta zehazki entrenatzaileen eta pilotarien arteko harreman hurbilak hizkuntzaren sozializazioa baldintzatzen dutela. Dena den, baldintzapen eta erlazio hauek nahiko era likidoan gertatzen direla pentsatu behar da; finean, elementuen arteko mugak lausoak dira eta oso erraz ukitzen dute elkar (irudian ikus daitekeen moduan).



1. irudia. Hirusta.

8.2. Third Space (edo hirugarren espazioa)

Komentatu da pilota-elkartea gune monitorizatu bat den heinean, horren ezaugarriek berau eskolarekin lotzea ahalbidetzen dutela. Atal honetan gai horri helduko zaio, proposamen bat egiteko.

Landa-lana egiterakoan, bertako agenteek bi instituzioen arteko (pilota-elkartea eta eskola) loturak egin izan dituzte. Hala ere, kirol-elkartek desberdintasun bat du eskolarekiko: jada aipatutako hurbiltasuna (horizontaltasuna, komunitatea, gazteen identitatearen garapena); hurbiltasun horrek kluba kalearekin gehiago lotzea dakar. Gainera, testuinguruak daukan ludikotasunak kalearekin lotzeko ideia indartzen duela esan daiteke. Aipatu da, halaber, hizkuntzaren aldetik begiratuta giroak, hurbiltasunak eta euskararekiko kontsentsuak hizkuntza-soziabilitate zaindua bultzatzen dutela pilota-elkartean.

Horregatik, kirol-elkarteak *third space* (Aliagas, 2017; Gutierrez, 2008) bat direla esan daiteke. *Third space* esatean, kalearen eta eskolaren artean dagoen espazio bat izendatzen da; alegia, hain berezita eta ezaugarri desberdinak dituzten bi espazio hauen erdian aurkitzen den espazioa.

Horrenbestez, lan hau oinarritzat hartuz, ondorengo hau esan daiteke: pilota-elkartea eskolaren antzeko instituzioa dela, gune monitorizatu bat den heinean, eta ikusi bezala, ezaugarri batzuk partekatzen dituela eskolarekin. Dena den, hurbiltasunak eta harreman horizontalek kaleak dituen ezaugarriekin lotzea ahalbidetzen dute eta, ondorioz, elkartea beste espazio batean kokarazten dute. Espazio berri honetan, bere arau propioak ditu.

Erreferentziak

- Aliagas, C. (2017). Rap music in minority languages in secondary education: A case study of Catalan rap. *Small languages and small language communities*, 248, 197-224.
- Beitia, I. (2018). *Euskara sasoian? Euskararen sozializazioa Gasteizko pilota elkarte batean* (master-tesia). UPV/EHU, Donostia.
- Berrio-Otxoa, K., Martinez, Z. & Hernandez, J. M. (2003). *Gaztetxoak eta aisialdia. Etorrizuna aurreikusten (2001-2002)*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Eckert, P. (2006). Communities of practice. In K. Brown (arg.), *Encyclopedia of language and linguistics* (2. argitalpena) (683-685. or.). Amsterdam: Elsevier.
- Gasteizko Udala. (2013). *Euskara biziberritzeko plan nagusia-Gasteiz 2013-2017*. <https://www.vitoriagasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/07/37/60737.pdf> helbidetik eskuratua.
- Gutierrez, K. (2008). Developing a sociocritical literacy in the third space. *Reading Research Quarterly*, 43, 148-164.
- Hernandez, J. M. (2008). Euskara birpentsatu beharra, ekarpen batzuk antropologiatik. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 69, 27-42.
- Kasares, P. (2015). Euskararen belaunez belauneko jarraipena aztergai eta jomuga. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 94, 13-45.
- Ortega, A., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J., Urla, J. & Uranga, B. (2016). *Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Ruiz, J. (2012). El grupo triangular. Reflexiones metodológicas en torno a dos experiencias de investigación. *Empiria*, 24, 141-162.
- Soziolinguistika Klusterra. (2017). *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa. Euskal Herria 2016*. http://www.soziolinguistika.eus/files/hekn2016-_eu_1.pdf helbidetik eskuratua.
- Soziolinguistika Klusterra. (2018a). *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa Gasteiz, 2016-Emaitzen laburpena*. <https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/75/68/77568.pdf> helbidetik eskuratua.
- Soziolinguistika Klusterra. (2018b). «*D ereduko kirola*» ikerketa proiektua. http://www.soziolinguistika.eus/files/d_ereduko_kirola_laburpena.pdf helbidetik eskuratua.

Aurkibidea / Índice

- 11 Aitzinsolasa
- 13 Prólogo
- 15 Testu-corpusen informazio morfosintaktikoaren etiketatze automatikoa
hizkuntz ezagutzan oinarrituz: zenbait arazo, hainbat erronka
ITZIAR ADURIZ, JOSE MARI ARRIOLA
- 31 Bertsolaritzaren genealogia subalternoak
LUZIA ALBERRO, K. JOSU BIJUESCA
- 47 Euskal hiztun berri gazteak muda-prozesuan: ekintza-ikerketa baten
behinbehineko emaitzak
ESTIBALIZ AMORRORTU, ANE ORTEGA, JONE GOIRIGOLZARRI
- 63 Garaziko euskararen azterketa diafasikoa
ALEXANDER ARTZELUS MUXIKA
- 81 Berridazketak Sarrionandiaren poesian eta Saizarbitoriaren *Egunero hasten
delako* nobelan: hurbilpen genetiko bat
MIKEL AYERBE SUDUPE
- 95 Somorrostro, mendebaldeko euskararen muga
GOIO BAÑALES, MIKEL GORROTXATEGI
- 113 Euskara sasoian? Euskararen sozializazioa Gasteizko
pilota-elkarte batean
IÑIGO BEITIA
- 127 Euskal hiztun natiboak, ez-natiboak eta hitanoa
GARBIÑE BEREZIARTUA ETXEBERRIA, BEÑAT MUGURUZA ASEGINOLAZA
- 141 Lingüística Histórica: estado actual
LYLE RICHARD CAMPBELL
- 163 Lenguas y sociolingüística en el interior del País Vasco en el siglo XIX:
testimonios del Archivo Zavala
BRUNO CAMUS BERGARECHE, SARA GÓMEZ SEIBANE

- 177 Les verbes psychologiques du basque : typologie et diachronie
DENIS CREISSELS, CÉLINE MOUNOLE
- 195 Testu-generoaren irudikapena eta erabilera ahozkoaren
didaktikan
LEIRE DIAZ DE GEREÑU LASAGA, ITZIAR IDIAZABAL GORROTXATEGI, LUIS MARI
LARRINGAN ARANZABAL
- 209 Zentsura-ikasketak gaur egun: aplikazioa euskal literaturan
AMAIA ELIZALDE ESTENAGA
- 223 Azentuazioaren eremu sintaktikoak mugatzen
ARANTZAZU ELORDIETA
- 237 Sintaktikoki etiketatutako euskarazko corpus historikoa
eraikitzen
AINARA ESTARRONA, IZASKUN ETXEBERRIA, RICARDO ETXEPARE, MANUEL
PADILLA-MOYANO, ANDER SORALUZE
- 253 Ahozkotasunaren didaktika ikuspegi dialektikotik abiatuta
AINHOA EZEIZA, JAVIER ENCINA
- 267 Ahozko euskararen erabilera eskolan: gako zenbait irakasleen prestakuntzarako
INES M. GARCIA-AZKOAGA, OLATZ BENGOETXEA, JOSUNE ZABALA
- 283 El corónimo navarro *Salazar / Zaraitzu*: origen y desarrollo de su doble
denominación
ROBERTO GONZÁLEZ DE VIÑASPRE
- 295 *Fontes Linguae Vasconum*: orígenes y documentos para una Historia
del Euskara
JOAQUÍN GORROCHATAGUI
- 315 Euskal literatura itzuliaren historiografia bateraturantz
MIREN IBARLUZEA SANTISTEBAN
- 329 Basque among the world's languages: a typological approach
IVÁN IGARTUA
- 351 Familias vascohablantes: propuesta de definición desde la socialización
lingüística
PAULA KASARES
- 363 Formation linguistique de basque aux enseignants, pour un enseignement
bilingue à parité horaire au Pays Basque Nord
BEÑAT LASCANO
- 375 Eñaut Etxamendiren obra narratiboaren ekarpena euskal poetika erruralari
ITZIAR MADINA
- 391 Erdaretarako literatur itzulpena: zeharkako eta zuzeneko itzulpenaren arteko
muga lausoa
ELIZABETE MANTEROLA AGIRREZABALAGA

- 405 Ahozko euskararen irakaskuntzarako irakasleen prestakuntza: berrikuntza didaktikoa eta soziala?
IBON MANTEROLA
- 421 Enkarterriko PI-(h)aran/(h)uri motako euskal toponimoak
MIKEL MARTÍNEZ ARETA
- 437 Diachronical hypotheses accounting for synchronic variation: the case of the Basque particle *ote*
SERGIO MONFORTE
- 453 Jardueraren azterketa irakasleak prestatzeko bide: debatearen ikas-irakaskuntzaren adibidea
AROA MURCIANO EIZAGUIRRE, ARANTZA OZAETA ELORTZA
- 467 Hausnarketa zenbait euskal literatura-ikerketetz
MARI JOSE OLAZIREGI
- 485 Ahozko euskara *Kolegioko ikastresna* ikasmaterialean
ARGIA OLÇOMENDY
- 501 Euskararen postposizioak
JAVIER ORMAZABAL
- 517 Hitz-ordenaren eragina zenbait ezaugarri gramatikalen erabilera-maiztasunean
LUIS PASTOR
- 533 Differential D-marking on proper names? A cross-linguistic study
IKER SALABERRI
- 547 Externalization and morphosyntactic parameters in Basque
HISAO TOKIZAKI
- 561 XIX. mendeko Debagoieneko testuez zenbait argitasun: egiletasuna eta iturriak
OXEL URIBE-ETXEBARRIA
- 579 Euskarazko perpausik gabeko azpikonparazioak
LAURA VELA-PLO
- 595 Latinaren aurreko osagai indoeuroparra Euskal Herriko toponimian: bukaeran -(iz)amo duten leku-izenak
LUIS MARI ZALDUA

Izenburua/Título:

Fontes Linguae Vasconum 50 urte. Ekarpen berriak euskararen ikerketari/Nuevas aportaciones al estudio de la lengua vasca

© Argitaratzaileak/Editores:

Ekaitz Santazilia, Dorota Krajewska, Eneko Zuloaga, Borja Ariztimuño

© Egileak/Autores:

Itziar Aduriz, Jose Mari Arriola, Luzia Alberro, K. Josu Bijuesca, Estibaliz Amorrortu, Ane Ortega, Jone Goirigolzarri, Alexander Artzelus Muxika, Mikel Ayerbe Sudupe, Goio Bañales, Mikel Gorrotxategi, Iñigo Beitia, Garbiñe Bereziartua Etxeberria, Beñat Muguruza Aseginolaza, Lyle Richard Campbell, Bruno Camus Bergareche, Sara Gómez Seibane, Denis Creissels, Céline Mounole, Leire Diaz de Gereñu Lasaga, Itziar Idiazabal Gorrotxategi, Luis Mari Larringan Aranzabal, Amaia Elizalde Estenaga, Arantzazu Elordieta, Ainara Estarrona, Izaskun Etxeberria, Ricardo Etxepare, Manuel Padilla-Moyano, Ander Soraluze, Ainhoa Ezeiza, Javier Encina, Ines M. Garcia-Azkoaga, Olatz Bengoetxea, Josune Zabala, Roberto González de Viñaspre, Joaquín Gorrochategui, Miren Ibarluzea Santisteban, Iván Igartua, Paula Kasares, Beñat Lascano, Itziar Madina, Elizabete Manterola Agirrezabalaga, Ibon Manterola, Mikel Martínez Areta, Sergio Monforte, Aroa Murciano Eizaguirre, Arantza Ozaeta Elortza, Mari Jose Olaziregi, Argia Olçomendy, Javier Ormazabal, Luis Pastor, Iker Salaberri, Hisao Tokizaki, Oxel Uribe-Etxebarria, Laura Vela-Plo, Luis Mari Zaldua

© Argitaratzailea/Edita:

Nafarroako Gobernua/Gobierno de Navarra

Kultura eta Kirol Departamentua/Departamento de Cultura y Deporte

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia/Dirección General de Cultura-Institución Príncipe de Viana

Lanak adituek berrikusi dituzte, itsu bikoitzeko sistemaren bidez/Los trabajos han sido revisados por pares doble ciego.

Diseinua eta maketazioa/Diseño y maquetación:

Kö estudio

Imprimaketa/Impresión:

Linegrafic

ISBN: 978-84-235-3561-3

LG/DL: NA 1438-2020

Sustapena eta banaketa/Promoción y distribución:

Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Funtsa/Fondo de Publicaciones del Gobierno de Navarra

Navas de Tolosa, 21

31002 Iruña/Pamplona

Tel.: 848 427 121

fondo.publicaciones@navarra.es

<https://publicaciones.navarra.es>

Fontes Linguae Vasconum 50 urte.

2019an 50 urte egin zituen Nafarroako Gobernuaren Vianako Printzea Erakundeak argitaratzen duen *Fontes Linguae Vasconum: studia et documenta* euskal hizkuntzalaritzako aldizkariak.

Horren gorazarre, liburu honek gaur egungo euskal hizkuntzalaritza- eta literatura-ikerketan zertan den erakutsi nahi du. Eskarmentu handiko ikertzaileek eta belaunaldi berriek bat egin dute argitalpen honetan, besteak beste, dialektologia, hizkuntzaren didaktika, filologia, gramatika teorikoa, hizkuntz tipologia, hizkuntzalaritza historikoa, itzulpengintza, literatura, onomastika eta soziolinguistika hizpide dituztela.

La revista de lingüística vasca *Fontes Linguae Vasconum: studia et documenta*, publicada por la Institución Príncipe de Viana del Gobierno de Navarra, cumplió 50 años en 2019.

En homenaje de la efemérides, este libro pretende dar cuenta del estado actual de la investigación en lingüística y literatura vascas. Investigadores de gran trayectoria y nuevas generaciones se reúnen en esta publicación para tratar, entre otros temas, sobre dialectología, didáctica de la lengua, filología, gramática teórica, tipología lingüística, lingüística histórica, traducción, literatura, onomástica y sociolingüística.

ISBN: 978-84-235-3561-3



9 788423 535613